

## Iltzailleak Lekeition

*Alderdi*, 278. zk., 1972-08/09.

Lekeition zer gertatu den jakin nai duenak ez beza izparringirik irakurri; joan bedi, aldiz, Lekeitio bertara eta galde bezaio erriari erriak begi argiak eta belarri luzeak bait ditu.

Bestela, lekeitiar batek esan digun auxe irakurri beza:

San Antolin jaiak dirala-ta ari ziran erriko agintariak festak geratzen: kezkatua bizi dan gazte batzuk, berriz, orrelako festik ez zuten nai, eta irailaren 1goko (ostirala) gaurdian orri batzuk zabaltzen ari zirala, 17-20 urteko gazte bi atzematen dituzte guardiazibillak; gazteak, tortura bidez izketan jarri eta or jakin dute gorde-lekua non duten. Goizeko lauretako Bilbora eskatutako indarrak Lekeition dira kotxe, furgoneta eta autobusean, eta danen artean seiak ingururako Tenderia eta Beaskokalea bitarteko etxe-molkoa arturik daukate. Ba da guardiazibil eta polizia ugari. Ala, seiak inguruan erria lotan etxe-bizitzetatik iñortxo ere atera arazi gabe or asten dira guardiazibil eta polizikoak mutillak dauden etxe-bizitzako leioetara tiroka. Tiroak entzun zitunean, erriko geienak etxeferoak ziralakotan ez ziran leiora irten ere; baiña etxeferoen atzetik gazteen deiak entzun izaten dira eta oraingoan ez zen txistu soiñurik eta algarrintzirik sentitzen. Lekeitiarrak laixter igerrri dioten diote ixilpeari zorigaitza, galerna aurretik izaten diran utsuneak orrelakoxeak izaten bait dira; eta jeiki eta leioak ideki dituztenean or ikusten dituzte guardiazibil eta poliziak fusillekin keiñatsi eta leioak ixteko deadarrean. Tiroketak aldi bat irauten du. Noizpait, berriz ixilunea, eta garbi-garbi entzuten den gazte abotz batek anbulantzi bat eskatzen du, bere laguna odol-ustutzen ari da-eta. Leiatillen atzean dagoen erriak entzuten du oiugarratz au eta zer egin ez daki; noizpait lekeitiar bat, Jose Maria Garabilla, jeixten da guardiazibillengana eta esaten die bera joango dela, uzten badiote, iltzen dagoen mutillaren billa. Baiña guardiazibillak ez diote uzten.

Tiroketa asten da berriz; toki guzietatiko tiroak leio beretara dijoaz; ala, berriz ere abotz berak esaten du: laguna il zaiola, bakarrik geratu dela eta besoak jaso eta entregatzeko prest dagoela. Guardiazibillak esaten diote eskailleratik bera jeitxi eta eskuak gora dituela ateratzeko. Gazteak dio, berriz, atea giltzez itxia dagoela, eta giltzik ez duela arkitzen. Guardiazibil batek deadar egiten dio soka bat botako diotela eta balkoitik bera sokaz jeixteko. Gazteak, berriz, ezetz, beera dijoan bezala akatuko duten beldur dela eta nai badute, soka lotuta aixkora bat jartzeko, berak gora tira eta aixkoraz atea apurtuta aterako dela. Ala egin ere, bialtzen diote aixkora sokaz eta minutu larri batzuk ixil-ixillak joan dira aixkora atearen kontra sentitu arte, eta, ala, gaztea atea aizkoraz puskatzen, dunba-dunba, ari dela tiroketa bizi eta gogor bat entzuten da.

Gero, ezer ez.

Eta polizi eta guardiazibillak gol bat sartu balute bezala algaraz eta elkar besarkatzen asten direnen ikasten du erriak bigarren mutilla ere, eta agindu bezala atea aizkoraz puskatzen ari zen bitartean, akatu dutela.

Gero, elizkizunik gabe, beste legeak agintzen dituenak bete gabe, bi gazteak txakurrak balira bezala lurperatu nai dituzte. Zulogilleak paperak eskatzen ditu. Baiña amenazoz beartu eta derrigorrean eta paperik gabe lurperatzen ditu mutillak.

\* \* \*

Irailaren 7an zabaldu da errian arratsaldeko 5-tan bi illen alde elizkizun bat izango dala.

Eta alaxe da; erriko apaiz-buruari General Iniesta Cano berak deitu dio Gijonetik, orrelakorik ez egiteko esateko; baiña elizkizuneko asmoak aurrera doaz, eta erriak eliza bete-bete egin duanean, koroko organoa betiko asiera jotzen asi eta ez da apaizik aldarera ateratzen. Organoak berriz egin, eta berdin. Irugarren aldiz jo eta aldarea utsa. Guardiazibillen eta polizien buru egiten dutenak daude apaiz-buruarekin sakristian eztabaidetan: indarkeriaren izenean ari direnak, ez ateratzeko, eta Jainko-gizonak, berriz, baietz.

Eta azkenean Jainko-gizona aldare gaiñera igo eta meza ematen asten da.

Sermoi-garaiean, apaizak erriari barkapena eskatzen dio, il diren bi mutillei bear zuten azken-laguntza ematerik izan ez dutelako, ez baitie ori egiten utzi.

Erria, ixilik eta ler-naiean.

Elizkizuna amaitu eta gero erria elizatik kanpora urtetzen asten denean eliz-aurrea guardi armatuz bete dago, eta txerriekin egiten den bezala, denak banan-bana balla-tarte batetik pasa erazten dituzte, zine-kamara batez arpegi guziak, banan-bana, ar ditzaten.

\* \* \*

Au da Lekeition gertatua.